



Iñigito Txapelpunk bere bizitza musikalaren “alma mater”-a da. 32 urte daromatza gitarrarekin. 20 urte Txapelpunk egitasmoarekin. “Zorionak nire partez niretzako” 9. diskoa da eta trobadore-punk arimarekin dator. Iñigito, gitarra eta ahotsa. Iñigito Txapelpunkek lehenbizi bere buruari egin dio oparia, norbera lausengatu ondoren gainerako entzuleei erakutsi nahi die landu duen oparia. Etxeko estudioan sartu eta hipokanpoan dituen musika ideiak grabatu ditu hamar kantuetan. Pelikulei buruz esaten den bezala, diskoa antzera grabatu du, plano-sekuentzian. Kantua goitik behera edo hasi eta buka. Hamaika baino dozenaka grabaketa egin dizkio kantu bakoitzari. Gustura geratutako bertsioren bertsiok egin ditu txikikeriengatik, normalki. Norberaren kontrako ariketa norbera ahalik eta gustuen geratzeko. Iñigito Txapelpunk, gitarra eta ahotsa. Hor daude osagai organiko guztiak. Kantuek profil asko dituzte: lasaiak, sentiberak, abiadurakoak, gogorak, ferekatzaileak, zartadakoak, rock zaleak, punk zaleak, melodikoak, erakargarriak, hunkigarriak. Laburtuta esateko moduan gaude: Iñigito Txapelpunk trobadore-punk.

ZAPALTZEN DUZUNEAN

Emozionalki ez zarenean ongi aurkitzen, abesti hau entzun beharko zenuke, zure lagunekin bizi izandako momentuak etorriko zaizkizu burura. Irten kalera, gogor zapaldu eta zure botek zapaltzean egiten duten zaratak gogoraraziko dizu nor zaren. Askok kostatu zitzaizkidan kantuen gitarra grabatzea (odola, zauriak...), lortu nuen eta oraindik sobera indar dut jarraitzeko.

HOY ES EL DÍA

Duela 32 urte ezagutzen dudala, eta gaur da eguna. Hiltzen naizen egunera arte jarraituko du “egun hori” izaten. I love my guitar! Melodia, kaña, orotzapen eta sentimendu asko. Entzuten dudak bakoitzean begiak malkoz betetzen zaizkit eta aspaldiko garai eta tokietara eramaten nau.

Y VERÁS

Eskolan bi gehi bi lau direla irakasten digute, eta behin eskola amaituta bizitzako eskolak irakasten dizu bi gehi bi ez direla beti lau. Hasieran ahots melodiko apurtua gitarra “balada zale” batekin, jarraian hard core sendo baten bihurtzen delarik.

NIRE PARTEZ NIRETZAKO

Gure barruan bizi gara, gutariko bakoitza mundu bat da. Hiltzen garenean orotzapenen munduan biziko gara... zure munduan. Kantu honen estrofa eta leloko ahotsak izugarri gustatzen zaizkit, biak uztarrarian jartzeko modukoak! Bi minutu, bi segundo egiten zaizkit.

MIL BOTELLAS

Mila botila? Edo mila eta bat ziren? Ez dut gogoratzen... Ah bai.. orain gogoratzen dut!!! Nire aurrean mila botila bete ikusten ditut eta horrela jarraituko dute beste mila urtez. Txunditurik geratu nintzen kantuen amaierako koruak nola gelditu ziren ikusirik, eta abesti honen martxa sentitzean berriro harrituta geratu nintzen.

WAN, TXU, FRI, FOR

Gure botoa emanen diegu gure mundu hau hobetu dezaten, baina boterera heltzen direnean... ez daukagu hitzik, bozkutzen jarraituko dugu... Bozkatu Txapelpunk! Gitarra eta ahotsa, erritmoa nire bihotzak markatzen du, zelako kaña!, bihotza topera.

CIUDAD DE PUNK ROCK

Zurekin egon nintzenean eta nirekin abestu zenuenean zutaz maitemindu nintzen, punka odolean eramaten bada, laster ikusiko dugu elkar. Gora Kuba eta Kubako rockanrolla! Melodia eta abiadura. Gitarra “soloa” bakarrik doa, laguntza gabe, biluzik, horrela etorri baitzen mundura.

ZORTZIAK

Melodia, sentimenduak eta rock and rolla. Punkiek ere negar egiten dute. Gitarra argiak eta distorsionatuak aldi berean. Diskoko abestirik geldoena baina, aldi berean, sakonena. Begiak itxi eta zure aitona-amonak gogorarazten badituzu abestia entzuten duzun bitartean... negar egingo duzu.

73mm

Bizitza sortzeko erabiltzen dudak balen neurria da, nire barneak tiro egiten du eta jomugan jotzen du... nire pua da. Gitarra entretenigarriak eta melodia erakargarria.

BORROKANROLA

Hitz egiteko esaten digute eta hitz egiten dugunean ez gaituzte entzuten. Lasai, hitz egiten jarraituko dugu eta. Bihotza topera berriro... entzun ezazu kardiologoarengana joan aurretik!

Gitarra eta ahotsa baino ez duen diskoa izan arren, azken urteotan egin dudak diskorik organikoena da. Ez dago “moztu-itsatsi” eta “pintxazo” gutxi dago, garai batean bezala. la onak garenok batzuetan gauza onak egiten ditugu eta hau ona dela esango nuke. Azala eskuz eginda dago eta beste guztiarekin bilatzen nuen emaitza dela uste dut. Zorionak nire partez niretzako!

32 urte abestiak egiten, eta 20 urte Txapelpunk taldearekin. Urte hauetan guztietan nire alboan egon da, nire zati bat da. Berarekin hasi nintzen eta berarekin ospatu nahi dut. Hasieran ez genion elkarri ulertzen, hizkuntza banatan ariko bagina bezala. Atzamarra odoletan izaten nituen ukitzen nuenean. Egun batean, ordea, gertatu zen, zinta isolatzaileekin nituen ezkerreko atzamarrek akordeak atera zizkion, eskuinak punteoa-ekin “g” puntua laztandu zuen. Une horretatik nire hutsune asko bete zituen, ez nekizkienak ere bai. “Zorionak nire partez niretzako”. Neure buruari egin didan oparia da, 10 abesti dituen CDa. Nitaz ari diren barneko 10 kantu, baina “zutaz” ere bai.

ritxi aizpuru + iñigito txapelpunk (2018ko azaroaren 23a)

